

EUSKARA ETA BIARNESA XVI. MENDEAN: ALBRETARREN ALDEKO GOMENDIOZKO KARTAK

Andres URRUTIA BADIOLA

1. ABIAPUNTUTIK HARANTZA: FEDERIKO KRUTWIGEN *LA NUEVA VASCONIA* ETA EUSKARA

Urte mordoxka joan da, joan ere, KRUTWIG adiskidearen lehen notizia izan nuenetik. Oker ez banago, Bilboko *Anaitasuna* aldizkarian egokitu zitzaidan aukera, Xabier KINTANA gaztearen idazluma nekaezinari esker, Federikoren irudia lehendabizikaz ikusteko eta haren pentsamoldeetan sakontxoago barruratzeko.

Aldi gogorak ziren haiek euskararentzat eta, oro har, euskal kulturarentzat ere. Non-nahi zen urri gure izatea, nolana ere eskas *euskal* horren gizarte eragina. Azalaren azpian, ordea, bazetorren bestelakorik, hots, gazteria baten gogo betea euskalgintzaren alorrean.

Gintza guztiek norabide zehaztuak behar dituztela eta, ez ziren horretan ere salbuespen gertatzen euskara eta Euskal Herriarena. Gidari behar, gidale-erroak finkatu eta azalarazteko. Zer behar genuen eta nora gindoazen jakin nahian geunden.

Hortik etorri zitzaidan eskura *Vasconia* liburua, erdi izkutuan eta lagun batek maileguan utzia. Halaxe gerturatu zitzaidan begien aurrean azal zuriko eta orri horixken liburu mardul hura.

Orduko irakurketaren gogorapenak aspaldikoak zaizkit eta, jakina, lausotu samarrak ere bai. Hala ere, orduko hori dut hasiera Federiko KRUTWIGEN gorabeheretan. Harrezkero ere jarraitu dut, zeharka bada ere, horren eragina


euskal letretan. Euskaltzaindian ere tarteko izan dut sarri askotan, Jagon Sailaren bileretan; beti ere, ohar eta iradokizun aberats eta hornituen egile.

Federiko KRUTWIGez jarduterakoan, arras erraza izan dakioke edonori laudorio eta lausengo soiletan ibiltzea. Horretan jausi gabe, hobetsi egin da orrialdeotan berak inoizko batean landuriko ildoari eustea, gogora eta, hala egokituko balitz ere, *gurea*, Federikoren ideia nagusi batzuk ekartzekotan.

Banuen non aurkitu horretarako oinarria. Izan ere, *La nueva Vasconia* (1979) liburua aspalditik nuen eskura. Bertakoak irakurri eta gero, Federiko KRUTWIGek Euskal Herriari buruz izan duen eta egun ere baduen ikuspegi zabal hori nola gureganatu horretan datoz jarraiko orrialdeok.

Federikoren esana eta idatzia da herriaren barnean hizkuntzak duen pisua eta garrantzia, batez ere herri hori bi, hiru edo lau ele nahiz hizkuntzen jabe bada.

Horren harira, etengabe predikatu ditu Federikok bizpahiru ideia nagusi, euskara bera Grezia eta Erromako kultura klasikoan txertatzeko eta uztartzeko, goi mailako euskal kulturaren esperantzaz.



Langintza horretarako erro sakon eta ezaugarri sendoak ikusi ditu KRUTWIGek betidanik, XVI. mendean LEIÇARRAGA artzain protestanteak *Testamentu berria* euskaratzean ondu zuen aparteko ahaleginean.

Baieztatuaren baieztatuaz, aldera ditzagun hona haren idazmoldeak:

La aportación del pueblo vasco debe estar en saber digerir y dar su propio matiz a la cultura europea [...] En la forma de concebir la lengua vasca, con aspectos en lugar de tiempos, sus distinciones entre condicio-

*nes reales, potenciales, hipótéticas e irreales, en su construcción "sui generis" es donde radica verdaderamente la forma de pensar vasca [...]*¹.

*Un nacionalista vasco debe esforzarse en elevar el prestigio social del euskara, buscando que llegue a representar un símbolo de cultura, y esto sólo es posible utilizando la forma que ha recibido el espaldarazo de la tradición, en nuestro caso, la lengua de Leizarraga, Axular, Etcheberri, etc, y haciendo que el euskara se convierta en medio apto para la impregnación cultural de la nación vasca, para lo que nunca debe ser un estorbo. Estas dos condiciones esenciales son las que representaba la lengua de la tradición escrita labortana*².

Euskal tradizioirik, hortaz, bazen eta bada KRUTWIGen aburuan. Ikus dezagun, aurrekoen ondorioz ere, non eratzen den tradizio hori eta, are argigarriagoa ere izan daitekeena, nola bil eta erka dezakegun aurrekoa, aldame-neko eta aldi bereko gertatu zen beste tradizio batekin.

Bigarren tradizio horri gagozkiola, biarnesa aipatu behar, berori izan baita konparaleku eta jorragai nagusia gure saioan, hautua ere Federikoren baitan genuela, horren hitzari jaramon eginez gero:

*La lengua gascona, que podríamos asimismo llamar vasco-romance, es la segunda lengua nacional del pueblo vascón*³.

2. LITERATUR TRADIZIOA: EUSKARA ETA BIARNESA XVI. MENDEAN

Zailtasun handirik gabe idoro daiteke, lehen esan bezala, KRUTWIGen sus-traiak non finkatu diren arazo horretan.

Behin baino gehiagotan azaleratu ditu berak halakoak, bai eta noranahi barreiatu ere:

De esta forma, el lenguaje literario de Leizarraga, Axular y su escuela cumple el doble fin, que tan repetidamente señalamos, de ser el lazo de unión entre las comunes y agrupaciones de la base y, al mismo tiempo, unir al pueblo a la superior comunidad de pueblos libres. Es la más genuina expresión de idioma que sirve efectivamente a un pueblo en

¹ Sarrailh de Ihartza, F.: La nueva Vasconia, Ediciones Vascas, Donostia, 1979, 52-53. orr.

² SARRAILH DE IHARTZA, F.: *Ibidem*, 54-55. orr.

³ Sarrailh de Ihartza, F.: *Ibidem*, 49. or.

sus relaciones humanas. Une a las células vivificantes del euskara popular hablado y enlaza con la cultura humana a través de la unidad greco-latina de nuestro círculo cultural⁴.

Bazuen Federikok aurreko horiek idazteko arrazoi haina. VILLASANTERen lana, ez ahaztu, lorratz beretik zihoan garai batean (berrogeita hamargarren hamarkadan, hain zuzen ere) eta hala adierazi zuen fraide gernikarrak, euskaltzain oso izendatu eta Euskaltzaindian egin zuen sarrera hitzaldian.

Gertaera horren hitzak hainbat bider errepikatu ditu KRUTWIGek, euskara *nazional* horren peskizan egin dituen ahal guztietan.

VILLASANTEk nabarmendu zuenez,

Hirugarren tokian Krutwig euskaltzain jaunaren aburua azalduko dugu. Hunen iritziz, euskarak ba-du bere litteratur-hizkara, laphurtarr zaharra edo klassikoa, alegia, gure idazle nagosiek moldatu zutena. Beraz, hura erakhutsi ta litteratur-eginkizunetarako erabili beharr genduke euskaldun guztiek. Hemen dugu ororen arteko harr-emanetarako beharreko dugun litteratur hizkuntza; huni jarraikiaz ta lotuaz bilhatzen duguna lorturik dadukagu [...] Krutwig jaunak dionez, litteratur hizkuntza batez ere hizkuntza idatzia da, izkiriaria, eta hizkuntza izkiriaria bere arau, lege eta eskubideak izan obi ditu, tradizinoz sorthuak. Tradizino huni entsi beharr zaio, bada⁵.

Jokamolde horrek berehala ekarri zuen ondorengorik. VILLASANTEk berak, esan legez, antzekorik aldarrikatu zuen sarrera hitzaldi sonatu eta aipatu horretan:

Laphurtarr klassikoa hautatzearen gain, ordea, idazle batzuk eredu edo kanon bezala izentatu beharrean ere aurkitzen da litteratur euskara, heken hizkera molde jakina euskara zuzen, jaso eta erabili beharr denaren ispilu bezala harr dadin eta grammatikak eredu hoietatik idatz-euskararen arau eta erregelak athera ditzan amoreagatik. Egikizun hunen bethetzeko, Axularr eta Etxeberri, laphurtarr klassikoaren idazle garaiak iduri dute haukerakoenak⁶.

Gogokide batzuen berri ere eman zuen gernikarrak abagune hartan. Izan ere, orduko bazebiltzan beste idazle batzuk ideia horiek mamitzen. VILLASANTERen hitzak dira hauek:

⁴ Sarrailh de Ihartza, F.: *Ibidem*, 47-48. orr.

⁵ Villasante-Cortabitarte, L.: «Litteratur-euskara. Lapurtarr klassikoaren gain eratu», *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, año VIII, cuaderno 1º, 1952. 103-104. orr.

⁶ VILLASANTE-CORTABITARTE, L.: *Ibidem*, 296-297. orr.

Bilboko "Urkixo'tar Jul Elkharrgoa" gogotik lan egiten hari da. Erkiaga, Garro ta bertze euskal idazle prestuek izena eman derauko-te elkargo huni. Laphurtarra erakusteko aulki bat Bilbon jarri da, Arrutza jauna irakasle delarik. Aldizkari bat argitaratzeko asmoa ere ba-dute⁷.

Eusebio ERKIAGAREN literaturgintzari so eginez gero, erraz antzematen da horren aztarnarik. *Euskararen hel-oihua* eskura du irakurleak, lekeitiarrak joera berri hori noraino barneratu zuen neurtzeko. Grafiaz zein tankeraz, are-ago ere terminologiaz, euskara molde berria datorkigu horrelakoetan.

Alfontso IRIGOYEN zenak ere bide horren printzak eskaini zizkigun, giro zehatz baten lekuko:

Erkiagarre, "Euskararen hel-oihua. Unamuno zuzen othe zegoan?" Gernika, n° 18 (1952), pp. 39-41. Erkiaga emplea normalmente en este artículo escrito en lengua vasca palabras tales como litteratura, Universitate, Euskal Akademia, syntaxis, neologismu y Atheneu Berria⁸.

Eredu horren nondik norakoa, beraz, euskal literatura *klasiko* horretan zegoen. VILLASANTEK idazle lapurtarrak ekarriko ditu gogora, AXULAR eta ETXEBERRI ZIBURUKOA bereziki. KRUTWIGEK LEIÇARRAGARENGAN jarriko ditu bere jakin-mina eta jomuga, bere horretan kausituko baititu goi mailako kulturaren osagarriak, greko eta latinetik ekarria eta euskaraz emana, jatortasun osoz.

Horren aribidean ere, ezin ahaztu hizkuntza nazionalen bitartezko literatura berrien argira etortzea ekarri zuela XVI. mendeak. Euskal Herrian ere, bertoko herrialde politikoaren zatiketaren gainetik, gertaera berberaren zantzuak begi-bistakoak ditugu. ETXEPAREREN *Linguae Vasconum Primitiae* (1545), euskaraz lehendabiziko liburu ezaguna dugu, jarraian (1571) LEIÇARRAGAREN euskaratze lana datorkigula; hurrenkeran ere, AXULARRENAK eta horren ingurukoak, euskal literaturaren urrezko garaietan.

Pil-pilean, beraz, literatur tradizioa euskararen baitan. Ez alboratu, edo nola ere, gure ahaleginen agertzen den bigarren aldakia, alegia, aldi horretako Nafarroaren haustura, Nafarroa Garaiaren eta Beherearen artekoa. Horrek izango ditu bere ondorioak, hala politikan, nola hizkuntza kontuetan,

⁷ Villasante-Cortabitarte, L.: *Ibidem*, 105 or.

⁸ Irigoyen Etxebarria, A.: «Epístolas de Erkiaga y Eu-logos a Krutwig a Paris», *De re philologica Linguae Uasconiae IV*, Bilbao, 1992. 103-104. orr.

Nafarroa Beherea izango baita LEIÇARRAGAREN sorleku eta habia, eta bertako errege-erregina kalbindarrak horren babesle, bultzatzaile eta akuilariak.

Beste horrenbeste esan daiteke biarnesaren inguruan. Erdi Aroko tradizio okzitanoa ñabardura batzuen bidez itxuraldatu behar da, iraganeko aberastasunak gerogarreneko zabalkundea ekarriko baitu.

Horretarako bereizi beharra dago, hasieran behinik behin, gaskoinera eta biarnesa. Lehenari dagokionez, BEC idazleak agerian jarri du gaskoinerak historian zehar izan zuen garatze prozesua:

En effect, à côté d'une langue juridique, administrative et véhiculaire abondamment attestée jusqu'au Pays basque et dans la Navarre espagnole, le gascon n'est pratiquement pas utilisé poétiquement: les troubadours entre Pyrénées et Garonne écrivent tous dans la koinè (langue commune) de la lyrique...⁹

Ildo beretik ere, BEC biarnesari buruz ari da, jarraikoa idazten duenean:

Sur le plan linguistique, ce durcissement étatique conduit à l'adoption du béarnais, nous l'avons dit plus haut, comme langue administrative et sacrée. Mais la production littéraire est presque inexistante¹⁰.

Are irtenagoa da CLAVÉ idazlearen esana, orrialdeotan aztergai den lana epaitzerakoan:

Le volume d'Arnaud de Salette parut en 1583. C'est la première belle œuvre de littérature béarnaise.¹¹

Izan ere, SALETTEK Daviden Salmoak biarnesaz itzultzean ondu zuen lana dugu, LEIÇARRAGAK *Testamentu Berria* euskaratzean egin zuena bezalaxe, erregina bultzatua eta lagundua, protestantismoaren zabaltze eta hedatze gogoarekin. Jas eta gogo beretik zetozten bi lan horiek eta, zeresanik ez, bi lan horien egileak. Bi-biok beren egintzetan gidari izan zuten liburuen berbaurrekoetan koroari zuzendu eta opa zioten gomendiozko karta edo gutuna. Karta horien azterketa konparatua izango dugu solasgai, euskara eta biarnesa hizkuntza *nazional* bihurtzeko tenore eta aldi baten erakusle gisa.

⁹ Bec, P.: Le siècle d'or de la poésie gasconne (1550-1650). Anthologie bilingue, Les belles lettres, Paris, 1997, 16. or.

¹⁰ BEC, P.: *Ibidem*, 19. or.

¹¹ CLAVÉ, P.: Prosateurs béarnais. Per noste & Marrimpouey Jeune editeurs. Pau, 1980. 16. or.

3. GOMENDIOZKO KARTAK: GENERO BATEN EZAUGARRIAK

Gutxi dira literatur lanen aurrekoak eta hitzaurreak xedetzat hartzen dituzten ikertze saioak. PORQUERAS¹² sailkatze kontuetan ibili da, hitzaurreen egitura eta edukia aintzat hartuta.

Egituraren ikusmoldetik bost dira, autore horren aburuz, hitzaurre motak: bertsoz egindakoak, epistola eitekoak, liburuari buruzkoak, eskaintza soilak eta beste idazle batek eginikoak. Edukiak, bestela ere, aurkezpen modukoak, teorigileak, doktrina zabaltzaileak eta gogonahi erakustekoak ikusten ditu berbaurreko horiek.

Horrekin batera ere, idaztankera berezia, ezaugarri apartekoak eta topikoak ditugu halakoetan.

Behialako literaturan egin nahi dugun ibilbide honetan, haatik, hitzaurre arrunt baten aurrean baino, *gomendiozko karta* biren esparruan gaudela ezin uka, AXULARrek erabili zuen deitura bera eskura nahi badugu behintzat.

Gomendiozko karta horietan, lehenengo eta behin, azpimarratzekoa izaten da, ia-ia zio nagusia, pertsonaia bati lana zuzentzea, eginak bidea zerbait eginda izan dezan, delako horren babes eta itzalpean.

PORQUERASI jarraiki¹³, hitzaurre aurkezle eta teorigileen ezaugarriak izaten dira bertan begi-bistakoak. Historia liburuetan sarri ematen dira aiurri horretakoak eta horiek atzeko aldean izan ohi dituzte beste hitzaurre batzuk, hain zuzen ere, irakurlearekin harreman zuzenak bideratu nahi dituztenak. Autore horrek, nolana ere, ez dio pisu handirik ematen hitzaurre mota honi, babesaren eragina nagusi baita, horren ustez, testu mota horien eginbeharretan.

¹² Porqueras Mayo, A.: El prólogo como género literario. Su estudio en el siglo de oro español, Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Madrid, 1957, 106-117. orr.

¹³ Porqueras Mayo, A.: Ibidem, 112. orr: «Pero dentro de este apartado clasificatorio quremos referirnos sobre todo a los prólogos dirigidos a algún personaje [...] "El prólogo dirigido a " viene a ser una dedicatoria en la que aparecen características de los prólogos presentativos y, en menor grado, de los preceptivos. Este tipo de prólogos es frecuente en los libros de historia y suelen ir seguidos de otros prólogos, propiamente tales, en los que aparece el contacto con el lector.»

Garai bereko eta modu honetako erdal hitzaurretan entzute handikoa da NEBRIJA bere gramatikari eman ziona: *A la muy alta Y assi esclarecida Princesa Doña Isabel, la tercera deste nombre, Reina i Señora natural de España [...]* Ikus NEBRIJA, A.: *Gramática de la lengua castellana. Estudio y edición de Antonio Quilis*, Centro de Estudios Ramón Areces, Madrid, 1990. 109 or.

Aurreko hori ez zaio zehatz-mehatz egokitzen bertako autuari. Bi kasuotan, gomendiozko kartok garai horretako ideia nagusi batzuk barneratzen dituzte, segidan duten lanen jatorria nondik datorkigun argitzearekin batera.

Hitz batez esateko, bi lanon suspertzaile izan ziren Nafarroa Beherea eta Biarnoko Errege-erregina Albretarrak, eta beren hizkuntz politika bertan dago adierazita, politika horren aldarte nagusiak ere eskura ditugula biotan: erreforma protestantearen zabalkuntza, herri hizkuntzen erabileraren bitartez.

LAFONTEk ezin hobeto bereizi ditu horiek, Albretarren (Nafarroa) eta Valoistarren (Frantzia) monarkien hizkuntz politika laburbiltzean:

Au contraire, l'année 1568 marque l'intention linguistique de Jeanne, dans une sorte d'équation tri-unitaire (un royaume, une foi, une langue) très moderne réponse parallèle et antithétique à la pensée politique des Valois [...] Cette année-là, pour le basque, elle charge Jean de Liçarrague de traduire le Nouveau Testament, les Psaumes et le Catéchisme de Calvin. Pour le béarnais, elle charge Claude Régin, évêque d'Oloron, de la traduction des Evangiles et des Epîtres. Comment ne pas prendre alors pour vérité le m'ac commanda de Salette, comprouvé de datation?¹⁴

Horren lerro nagusiak, zalantzarik ez, bi testuon erkatze saiotik etor dakizkiguke. Egoera beretik ez bada ere, antzekotik abiatu ziren bi hizkuntzok, euskara eta biarnesa, XVI. mendean eta Albretarren eraginetan. Egite mailan ere, antzekorik erdietsi zuten ala ez antzeman nahi dugu, jarraikoaren bidez.

4. GUCIZCO ANDRE NOBLE... ETA AU REI

Hasteko, finka ditzagun gure konparagaiak. Lehena, LEIÇARRAGAREN testua. Argitaratze data: 1571. Titulua: *Guczico Andre Noble Ioanna Albrete Naffarroaco Reguina Bearnoco Andre guehién &c. denari, bere cerbitzari guczico chipiac eta guczico obedientac, Ioannes Leiçarraga Berafcoizcoac, Iefus Chriften gratiá eta baque defiratzen* (aurrerantzean GAN). Frantseseko testua euskarazko testuaren aurretik dator. Bigarrena Arnaud DE SALETTEK ida-

¹⁴ Lafont, R.: «Situation de la langue d'Arnaud de Salette», Arnaud de Salette et son temps. Actes du Colloque International d'Orthez (16,17 et 18 février 1983), Per Noste, Orthez, 1984. 374. or.

tzia. Argitaratze data: 1583. Titulua: *Au Rei* (aurrerantzean AR). Biarnesaz idatzia. Ageriko dira biak, gerogarrenean ematen diren obra nagusien atarian, alegia, LEIÇARRAGAREN *Iesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria* eta SALETTEEN *Los Psalmes de David metuts en rima bernesa* direlakoan sarbidean¹⁵.

Egileak, Joannes LEIÇARRAGAKOIA eta Arnaud DE SALETTE, kalbindar apaizak eta egun aski ezagunak, bakoitza bere hizkuntzaren literatur arloan. Bion eragile ere, Joana Albretakoa, Nafarroa eta Biarnoko erregina protestantea.

Berrikitan azpimarratu ditu INTXAUSTIK BI LAN HORIEN HELBURU ETA INGURMARIAK. Ondoriotan ere ibilia zaigu gipuzkoarra, honetara alderatzen ditugula haietako batzuk:

3. *Erreforma protestantearen, eta prezeskiago kalbindarraren, testuinguruan egin zen itzulpen lan hura: fede-erlijioso baten zerbitzuan eta kalbinismoaren hedapen handiaren urteetan bain zuen (kalbinismo nafar-biarnes eskolatuak sustaturik, noski, eta Pabeko Sinodoan erabakita).*

5. *Deliberamendu ofizial hori, ordea, Erresuma politiko erlijioso-linguistiko orokorraren katebegi bezala ikusi behar da: a) Erreinuko hizkuntzekiko politika orokor baten barruan (biarnesa/euskara vs. latina/frantsesa); B) Eliz argitalpen-programa osoaren parte bezala (Biblia baina baita bestelako eliz liburuak ere)*¹⁶.

Zernonberri jakin eta gero, labur ditzagun gure erkatze ardatzak, hamarretara bihurtuz:

4.1. Idaztankera

Bi testuotan erabiltzen den diskurtsoa egokitu egiten zaio, formaz zein mamiz, euskarri duten liburuari. Horretara jarrita, euskarazko testua (GAN) hitz lauzko testua zaigu, liburuaren hitz lauzkoari dagokionez. Kontrara, biarnesa (AR) olerkari dugu egite eta usteetan, eta halaxe dator, etorri ere, liburuan bertan azalarazten den bertsozko salmotegiaren antzera.

¹⁵ Bi testu hauetatik jarraian egiten diren aipamenak edizio hauetatik hartuak dira:

LEIÇARRAGA, I.: *Iesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria. Othoitza ecclesiastico-en forma. Catechisme. Kalendrea. ABC edo Christinoen instructionea*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1990.

SALETTE, A.: *Los Psalmes de David metuts en rima bernesa. Edicion navèra preparada por Robèrt Darrigrand*, Per noster, Ortès, 1983.

¹⁶ Intxausti, J.: «Leizarraga eta Leizarragatarrak (1563-1571), Erreforma-Kontrarreformetako ilun-argitan», *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, Año 43, Tomo XL, nº 1 (1995), 159. or.

4.2. Beste hizkuntzen eragina

Ustez eta moldez orobatsu izanik ere, bi testuotan zabala da itzultzaileok beste hizkuntzen inguruan erakusten dituzten arreta eta begiramendua. Areagotua, dudarik gabe, euskararen kasuan, GAN testuak aurretiaz erakusten baitu, molde beretik ere, frantsesaren testua.

Hala ere, beste hizkuntza horien aldekotasuna mugatu behar dugu, latin eta grekoa baitira, oinarrian bederen, euskarazko eta biarnesazko itzultzaileek aitortzen dituzten ereduak.

Lotsarik gabe dihardute bi-biok, aitortza hori egiteko orduan:

*hala-ere confideratzen nuenean, nola gure demborán-ere anbitz per-
fonage iaquinfuric Testamentu berriaren trãflationean emplegatu içan
den, hambat Latinez, Francefez, nola anbitz berce lengoage abratfez
eta praticatuz: eta guero nola Trãflataçale beréc eta hayen ondoã ber-
céc anbitz gauçatan, bay fenfuan bay lengoagean cer erran eriden
vkan dutén...¹⁷*

*Après Dieu a volut que tot semblablement
Lo grèc e lo letin son profèta parlasse,
E tant Grècs que Letins en lor lengua ensehassé.
Despuish, eth a parlat enter nos lo francés,
E ara, com auditz, eth parla lo bernés...¹⁸*

Baditu, bestalde ere, esateko modu horrek bere arrazoi esanbidezko eta azalekoak, langintza berean baitziren, aspaldi batetik gainera, testamentu berri nahiz salmotegiaren frantsesezko itzulpenak.

Eliza katolikoak latina zuen hizkuntza bakarra, herriak deus ere ulertu ez arren. Erreformak, ostera, bere mezua zabaldu beharrez, berehala frantsesera-
tu zituen halako testu sakratuak. Frantsesarekin batera, bestelako hizkuntzak ere izan ziren Europan zehar albiste berriaren eramaile. Sona handikoak izan ziren, besteak beste, Luterok alemanaren inguruan egindako itzulpenak.

OLAIZOLAK¹⁹ argitan jarri du LEIÇARRAGAK zer-nolako testuak erabili zituen bere lana gauzatu ahal izateko. Grekoaren testua ere erabilgarri zuen ala

¹⁷ Leizarraga, I.: *Ibidem*, 252. or.

¹⁸ SALETTE, A.: *Ibidem*, LII. or.

¹⁹ OLAIZOLA, J. M.: *Historia del Protestantismo en el País Vasco*, Pamiela, Pamplona-Iruña, 1993, 176. or.: «Lizarraga tenía sobre la mesa además de la edición griega con traducción latina de Erasmo, la traducción francesa de Pedro Roberto Olivetan, Olivetanus, que la tradujo en los Valles del Piamonte cuando estuvo desterrado».

ez auzitan jarri du RUIZ ARZALLUZek²⁰. Frantsesezko testuari dagokionez, esan beharra dago 1535. urterako argitaratua zela. Erro beretik ere, SALETTEren salmotegiak MAROT eta BÈZEK frantsesez ondu zutena dauka begipeko, hastapen moduan²¹.

Aurretik ere egina zuen Joana Albretekoak horren moduko entsegurik. Hala agindu zion PEY DE GARROS gaskoinari eta hala paratu zuen honek ere salmotegi txikia gaskoineraz. Zergatik, ordea, gaskoineratik biarnesarako jauzi eta agindu berria? LAFONTEK bigarren agindu horretan, hau da, gaskoineraz ez eze, biarnesaz ere salmotegia egiteko manu horretan bertan, Joana Albretekoaren pentsamolde eta burubide aldaketa ikusi du:

Mais, on ne l'a pas assez remarqué, si la commande faite à Salette est sûre, non seulement celle faite à Garros ne saurait l'être, mais le projet même du Lectouvois s'en trouve invalidé: les PSAUMES de Garros ne peuvent en Béarn servir à chanter David! Si le poète gascon avait eu l'ambition que son texte remplaçât celui de Marot et de Bèze, voici qu'il reçoit, trois ans après la publication de son livre, un singulier camouflet de la Cour protectrice qu'il sollicitait²².

²⁰ Ruiz Arzalluz, I.: «El modelo griego de Leizarraga: ¿una quimera filológica?», Lakarra (ed.): *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*. Pars Prior. Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", Gehigarriak XIV, 115. or.: «Con los datos que tenemos, yo tengo el convencimiento de que en el escritorio de Leizarraga había sólo una versión francesa y, todo lo más, una Vulgata; tengo la certeza, sin embargo, de que no podemos postular, al menos de momento, un modelo griego».

²¹ DARRIGRAND, R.: «Introduction. L'œuvre», SALETTE, A.: *Los Psalmes de David metuts en rima bernesa*, Edición navèra preparada por Robèrt Darrigrand, Per noste. Ortés, 1983, XXVI. or.: «Un simple coup d'œil sur le texte permet de découvrir qu'il ne s'agit pas d'une traduction littérale mais d'une paraphrase du texte sacré, semblable à celle de Clément Marot et Théodore de Bèze qui a servi de modèle».

²² Lafont, R.: «Situation de la langue d'Arnaud de Salette», Arnaud de Salette et son temps. Actes du Colloque International d'Orthez (16,17 et 18 février 1983), Per Noste, Orthez, 1984, 374. or. Gisa berean hona hemen Super flumina Babylonis (137. Salmoa) ospetsuaren testuak Pey de Garros eta Salettek emanak:

PEY DE GARROS *Pròp las aigas babilonicas*
Grans arrius de lèrmas gitavan
Nòstas amnas melancolicas,
Quand de Sion s'arrecordavan:
Nos èram de pena lassats,
Sur las ribèras ajaçats;
E nòstes citres destenuts
Peus aubars leishàvan penuts.

SALETTE *Nos nos sedèm au cant deus fluvis larges*
De Babilon, plens de plors e d'esvarges,
Deu mont Sion estant memoratius,
Estant aishí au miei d'era captius,
Nòstes laüts e harpas descordadas
Aus sauç avèm penudas e leishadas.

BEC idazleak bi testu hauek aurkezterakoan honetara epaitzen du: *Voici la première strophe de la traduction de Salette, dans l'ensemble poétiquement inférieure...* Ikus: BEC, P.: *Le siècle d'or de la poésie gasconne (1550-1650)*. Anthologie bilingue, Les belles lettres, Paris, 1997, 52. or.

Horra hor, beraz, euskara eta biarnesa parez pare, beste hizkuntza garai-kideen mailara igo nahian.

4.3. Herri hizkuntzak zergatik erabili

Bi aldeotan ere bistakoa da herri hizkuntzak erabiltzeko gogo eta desira bizia. Lehen ere esana dugu, berriro ere errepikatze kontuetan jausi gabe, zer-nolako politikari erantzuten dioten testu hauek. Edonola ere, zilegi beki-gu bestelakoak ere aipatzea, hau da, bi testu mota hauek liturgian zuten esanahi zabala, liturgiak berak kalbindarren sinesteetan zuen hainakoa.

DARRIGRANDEk, SALETTEREN salmoen edizio berriari egokitu zion ikerlanean, zehatz-mehatz aipatzen ditu sinodo protestantearen jarraibideak:

D'abord, comment les pasteurs auraient-ils pu respecter les instructions synodales s'ils n'avaient disposé d'un recueil en béarnais? L'article 7 du chapitre qui traite des ministres stipulait: "les ministres qui sçauront parler le langage du país en useront en leurs presches et prières [...] Quelle pouvait être à cette époque la langue intelligible pour la grande majorité des béarnais? sûrement pas le français, et encore moins le latin"²³.

Horrela bada, bi idazki mota hauek erabilgarri suertatu ziren oso, kalbindarren eliza-zeregin orotan. Hala baieztatzen dute, ezaguna denez, FONDEVILLE katolikoaren bertsoek:

*Tout dimmenche hasen dus cops lours predicolles
En frances, en biarnes, chens nat mout de latii,
Et canta que-us hasen, tant vespre que matii,
Lous psalmes de David, virats a la francese,
Per Marot y per Bese, y mey a la biarnese
Per u doctou, natiu de la ville de Pau,
Qui hou deus huganauts ministre principau...²⁴*

Horretan ere lorratz jakin baten emaitzak dira bi lanok.

²³ Darrigrand, R.: «Introduction. L'oeuvre», Salette, A.: Los Psalmes de David metuts en rima bernesa, Edicion navèra preparada por Robèrt Darrigrand, Per noste, Ortés, 1983, XXVIII. or.

²⁴ DARRIGRAND, R.: *Ibidem*, XXVIII. or.

Funtsezkoa ere bada, hortik abiatuta, honelako beste datua ere, alegia, herri hizkuntzak erabiliz, herriarekin erdietsi nahi izan zen komunikazioa. Horrekin batera ere, barne-barnetik lotuta, hizkera maila.

SALETTEK horretan du kezkaburu:

*Tanben lo principau de mon intencion
es d'aidar los grossers de nosta nacion
A conéisher e laudar la majestat divina²⁵.*

KALININE autorearen hitzak alderatuz:

*Il s'agit bien d'évangéliser ceux qui ne comprennent pas le français,
c'est-à-dire la masse paysanne, et ainsi d'assurer la Réformation totale
du Béarn²⁶.*

Orobat LEIÇARRAGAREN baitan, GAN bertan ez bada ere, jarraian datoren eta geroenean azalduko dugun *Hevscalduney* berbaurretzoan.

*[...] lengoageaz den becembatean ahalic guehiena guciey adi eraciteari
iarreiqui içan gaitzaitza, eta ez choil edocein leku iaquineco lenhoage
bereciri [...]²⁷.*

4.4. Joana Albretakoa eta bere semea

Joana Albretakoa lehendabizikoa izan zen Nafarroako Gortean kalbindarren bidea erakusten. Bide beretik jarraitu zion, orpoz-orpo, bere seme Enrikek, azkenean katolikoan mesederako amore eman bazuen ere. Euskarazko eta biarnesazko itzulpenak Joanak agindu zituen, nahiz eta bigarrenaren testua erregina hil eta gero argitara eman²⁸.

Horrek zurrizten du bi testuon artean dagoen desberdintasun azalekoa, tituluari bertan nabari dena. GAN erreginari dagokio. AR, aldiz, haren seme errege berriari, Enrike III.ari, hain zuzen ere.

Tempus desberdinetan ari dira bi idazleok arazo honetan. Euskalduna, azaldu legez, erreginari doakio zuzen-zuzenean, horren laudorio eta miresmenetan:

²⁵ Salette, A.: *Ibidem*, LII. or.

²⁶ Kalinine, N.: «Pasutier français, psautier béarnais. Similitudea eta différences», Arnaud de Salette et son temps. Actes du Colloque International d'Orthez (16,17 et 18 février 1983), Per Noste, Orthez, 1984, 140. or.

²⁷ LEIÇARRAGA, I.: *Ibidem*, 254. or.

²⁸ ROELKER, N. L.: *Queen of Navarre. Jeanne d'Albret. 1528-1572*, Harvard University Press, Cambridge, Massachusetts, 1968, 120-124 orr.

*Çure humanitatea den becembatean, ene manerá halaco bacen-ere, non ezpaitzuen irudiric-ere çure humanitatea feculan enegana hel abal leitela, guciagatic-ere anbitz aldez hura valiatu içan çait, eta principalqui, çure maieftatearen placera hala içanic gage ordena lequidâ, çure Bearnoco herrian entretenitu iça naicen becembatean...*²⁹

Biarnesa, hala ere, edu diferentekoa da. Notatzekoak dira bere baitan dituen errege-erreginaren gorabeherak. Egiteko agindua eta baliabideak eman izana erreginari aitortzen dizkio, tartean ere deduzko omena egiten diola:

*Atau m'ac commandâ vòsta mair, la Regina,
Quinze ans son ja passats, e deu temps que jo joen.
Pensavi bèth còp plus aus procès de la gent [...]
Afin que los pagés, las hemnas, los hilhòtas,
Non cantèssen non plus cançons hòlas o sòtas,
Abans, a son exemple, emplegassen la votz
A celebrar lo nom deu gran Senhor de tots.
Mès la mort tròp dorèca, helàs! e tròp subita
La retirà de nos e he qu'en l'auta vita,
Deus anges admirada, era ved lo gran Dieu,
E lo lauda sens cèssa ab lo profèta ebrui*³⁰.

Ari da SALETTE, horretantxe ere, errege berriaren aurrean. Horri luzatzen dio eskaintza. Horren babesa eskuratu nahi du eta beren beregi gogorarazten dizkio amarenganako gogoa eta haren erlijio lana:

*Or ètz vos l'eretèr, Sire, de sa corona,
E nos representatz sa celèsta persona;
Vos ètz hilh deu país, vos ètz hilh de l'ostau,
E vòstes uelhs s'obrín prumèrament a Pau.
A vos doncas de dret las causas son degudas
Qui hon a vòsta mair, quan vivè, prometudas*³¹.

4.5. Herri hizkuntzak erabiltzeko lehenak

Bi testuok dakarkigute, lehen prediku batean, bi kasuotan berrikuntza nabarmena duguna, hots, euskara eta biarnesa ordura arte izan ez duten eta ordutik aurrera izan dezaketen etorkizun idatzia.

²⁹ Leizarraga, I.: *Ibidem*, 249. or.

³⁰ Salette, A.: *Ibidem*, LII. eta LIII. orr.

³¹ SALETTE, A.: *Ibidem*, LIII. or.

*Alabaina fegur içanez ecen Heufcaldunac berce natione gucién artean
ezgarela hain baffa, nō gure lengoagez ecin eçagut eta lauda deçagun
gure Iainco Iauna...³²*

*Lo bernés pauc batut en versificatura,
Totasvetz qui receu la medisha mesura
Que lo sobte gascon ni lo francés gentiu,
E exprima autan plan, ça cuti jo, l'ebriu
De David que los auts; çò que jo dic, non cèrta*

*Per me vantar d'aver la pluma autan disèrta
Que los autors francés qui tribalhat i an;
Mès tot çò que jo'n dic es solament d'autant
Que çò que lo francés ditz en faïçon gorrièra
Nos ac representam a la mòda grossèra³³.*

4.6. Protestantismoaren zabaltzaileak

Duda izpirik gabe, bi testuok dira, INTXAUSTIk adierazi bezala, erreforma protestantearen zabalkunderako lanabesak. Horretan dute xedea batak zein besteak, eta hala gertatzen da batean zein bestean, aurreko puntuetan azaldu-rik geratu denez:

*Baina are guehienic bihotz eman vkan cerautana cen nic nuen fpe-
rançá, ecen moien hunez Iaincoaren hitz purac vkanen luela fartze eta
auaçamendu Heufcal–herrian: eta hunetacotzat çu Andreá, hunez cer-
bitzaturen cinadela trompettabaten ançora, ceinez Iaincoac deitzen
baitzaitu hala çure Naffarroaco refumã–ere Satani guerla egitera, nola
eguin eta eguiten–ere baitraucaçu çure dominationeco berce leku
gucietã³⁴.*

*Junct que lo medish zèl e santa afeccion
Qu'era avè d'avançar la Reformacion,
(Gràcias au Tot–Puishant!) vos acompanha, Sire,
E causa que cascun qui crenh Diu vos admira.
Velà perquè jo'vs hèish de mon òbra present³⁵.*

³² Leizarraga, I.: *Ibidem*, 252. or.

³³ Salette, A.: *Ibidem*, LII. or.

³⁴ LEIZARRAGA, I.: *Ibidem*, 253. or.

³⁵ SALETTE, A.: *Ibidem*, LIII. or.

4.7. Errege–erreginaren egitekoa

Itzultzaileok, bestetik ere, errege–erreginaren inguruan erakusten dute dotrina zehatz baten haria. Biotan ere, bistarako erraza, errege–erreginari eskatzen zaizkie Jainkoaren gogoak gauzatzeko kemena eta eskubidea.

Hala dio LEIÇARRAGAK,

Hunetacotza t exemplutan frangoqui allega abal deçaquet çure Bearnoco herria: hura behin berce erran abal daitenic batre beçain Iaincoaren hitzaren recebitzera behatu gaitzetaco eta rebeleracutfi içanic, guciagatic–ere, Iaincoa çure zeloaz, çuhurtziaz eta gogo–handitaffunaz cerbitzatu içanic halacara manfotu eta ematu içan da, nõ egungo egunean Bearnoc gucian Iaincoaren hitza paifiblequi eta edificatione handitan predicatzen baita, baieta disciplina ecclesiastica eguiatzqui eta bide beçala obseruatzen...³⁶

Era berean SALETTEK,

*Aishí Diu a mercat de sa mèrca autentica
Los reis son lòctenents; los quaus de lor costat,
De tant qu'apròchan plus de la divinitat
En gran lustre e grandor, devin aver memòria
De'u servir los prumèrs e procurar sa glòria [...]
Qu'aqueth medish gran Diu qui de gràcia especiala
Vos a pausat suu cap la corona reiala
De sa gent de Navarra e metut en la man
Deu país de Bearn lo baston sobiran,
Aqueth medish gran Diu, dic–jo, vos condusesca
En tots vòstes sendèrs e en dret establezca
Vòste tròne avitin e haça qu'a jamés
Lo laudetz d'un acòrd vos e vòstes sosmés³⁷.*

4.8. Itzultzaileen neke eta ajeak

Hitzaurraz denaz bezainbatean, plazaratu ditugu arestian PORQUERAS idazlearen pentsamolde eta ikusaldeak. Horien artean, aipatu ditugu halako berbaurrekoetan sarri ematen diren tankera eta idazmodu kontuak.

³⁶ Leiçarraga, I.: *Ibidem*, 250. or.

³⁷ SALETTE, A.: *Ibidem*, LII. eta LIII. orr.

Herri hizkuntzak lehendabizikoz erabiltzearen ondorioz, LEIÇARRAGAK nahiz SALETTEK badute horren jakite zuzena. Jakitun dira beroriek direla lehen jorratzaileak. Horren ondorio ezinbestekoak, beraz, prozesu luze horretan izan dituzten neke eta ajeak:

...cembatez nic scribatu dudan lengoage motá baita, fterilenetarie eta diuerfenetarie: eta oraino tráflationetá behinçat, vfatu gabea³⁸.

Lo bernès pauc batut en versificatura³⁹.

4.9. Itzultzaileen apaltasuna

Tartekoa dugu halakoetan, eta PORQUERASEK⁴⁰ ere baieztatzen du, egileak erakutsi behar duen apaltasuna.

Topikoaren topikoaz, badira gure itzultzaileak ere eraberekoak, topiko hori bete-betean baitagokie bi-bioi. Gure kasuan, errege-erregina izan dute eragile eta beraren azpian jartzen dute euren lana, euren burua zertxobait txiki eta deuseza izango balitz bezalaxe.

Hunen gaineã çure maieftateari fupplicamenduz nagoca, dena oneta-cotz othoi recebitu nahi duçun, obraren handitaffunera eta dignitate-ra behatzenago duçularic eçen ez Tranflataçalearen imperfectionetara eta chipitaffunera...⁴¹

*Vos pregant qu'en arren no'vs sia desplasent
Mon tribalh, ni mon don, ni mes ma hardiessa,
E que no'u judgetz pas segon la petitessa
Deu qui i a tribalbat, mès segon l'argument
Qu'eth tracta; deu gran Diu e de son mandament⁴².*

4.10. Hitzaurrea gehi irakurlearentzako ohartegia

Esana dugu eta berriro gatoz puntura. Ohiko izaten da halako hitzaurre gorabeheretan, atzeko aldean datorren bestelakoa, irakurlearentzako lotura estuagoa dakarrena⁴³.

³⁸ LEIÇARRAGA, I.: *Ibidem*, 252. or.

³⁹ SALETTE, A.: *Ibidem*, LII. or.

⁴⁰ PORQUERAS MAYO, A.: *Ibidem*, 143. or.

⁴¹ LEIÇARRAGA, I.: *Ibidem*, 253. or.

⁴² SALETTE, A.: *Ibidem*, LIII. or.

⁴³ PORQUERAS MAYO, A.: *Ibidem*, 112. or.

Bi hitzaurreok gogoratzen dute egitura berbera.

LEIÇARRAGAREN baitan honetara: GAN+*Hevscalduney*

SALETEREnean, ordea, antzera: AR+*Advertissement au lectoo*

Hevscalduney eta *Advertissement* direlakoetan, irakurlearentzako argigarririk eta oharbideak ditugu. Ugariagoak biarnesazko testuan, murrizagoak *Hevscalduney* izenekoan. Honek erakusten duen arangura nagusia euskaldunen arteko hizkera aniztasuna da. Horretarako lagungarri gerta daitezkeen osagarriak ematen dira, hala nola, berbategia.

SALLETTERi, kontrara, ahoskera eta olerki teknika zaizkio ardurara, metrikarako gerta daitezkeen zailtasunak gainditzeko asmotan. Berba batez esateko, halako biarnesazko *ars poetica* txiki baten aurrean gaudela esan dezakegu SALLETERen *advertissement* deiturikoan.

5. KATOLIKOEN ERAGINA: AXULARREN GOMENDIOZKO KARTA

Zeinek erakutsia ere bazuen Eliza Katolikoak kalbindarren aurrean. Erantzuna berandutu zitzaiola ezin ahanzi. Egokiera izan zuenean, osterara, badirudi betelana baino, lan betearen egin zuela bere alde.

Euskal letretan AXULAR da horren gailurra. Bera gailenduko da euskal literaturan eta bera ere, LEIÇARRAGA eta SALETTERen antzera, zuzenean joango zaio orduko noble eta leinuko katoliko bati, Bertran Etxauzkoari, hain zuzen ere.

Laupabost puntutara bil daitezke horien arteko parekatze laburra:

1. AXULARren lana zuzentzen zaio, esan legez, Bertran Etxauzkoari⁴⁴, leinu eta odol garbiko katolikoari, errege-erreginari baino.

2. AXULARren lana zuzenean doa erreforma protestantearen aurka. Etxauzkoa, nola ez, erreforma horren kontrako kapitaina dugu:

⁴⁴ Villasante, L.: Axular. Mendea. Gizona. Liburua, Aranzazu, Oñati, 1972, 52-60 orr.

Zu izan zara Echaus, mendi Pirinioetan, Alduideko hegaletan, bethiere zentinela, eta begiraille bezala [...] Eta bai egiazko fedearen eta legearen defendatzaille, eta aitzinatzaillle buruzagiak ere. Nafarroa beheko parte hetan, bertze anhitz lekhutan bezala, lege katolikā saindua, iduriz flakatzera, kordokatzera eta erortzera zihoanean, badaki munduak nola zure aita Iauna, bere etxeaz, onez eta biziāz ere kontu guti eginik, ioan zen Donapalaiora, non baitzen orduan Nafarroako Parlamenta. Eta han ausartzia handi batekin, bere bihotz giristino noblearekin, hasi zen, ezpata biluzia eskuan harturik, oihuz, [...] Eta hanbat egin zuen, non bere herria eta ingurunekoak ere, hetan sartzera zihoan eritasunetik begiratu baitzituen⁴⁵.

3. Erreformaren kontrakar hori sakona da. Eskubetez nahi ditu AXULARrek herejiaren galbahetik euskaldunak aldendu:

Horrekin batera ere, herriarengan sortua zen nahasmenduaren arbuiorik erabatekoena,

... ikhusirik ezen, elizatik kanpoan zebiltzan iende batzuek, nahi zituztela, bere azken finean, gorputza elizan sarthu eta ehortzi [...] ekkharri zenduen, gero ere, behar zen erremedioa, eta handik harat, halako desordenuen debekatzeko ordenantza eta manamendua⁴⁶.

4. AXULARren testuak gomendio lana du helburu. Ez dago bertan hizkuntzaren inguruko buruhausterik, geroko batean paratuko baitu Sarako erre-toreak gai hori, *Irakurtzailleari* izeneko eta gomendiozko kartaren jarraiko testuan.

5. Hortaz, hiruotan daude gomendiozko kartak (hala izendatzen ditu AXULARrek) eta geroko *irakurtzaileei* zuzenduriko testua, hau da, hiruotan nabarmentzen da gomendio lana, babes bilaketa eta babes horren azpiko erlijio kezka. Hizkuntzarena ere argiago dago protestanteengan, AXULAR katolikoak hori gerogarreneko testurako gordetzen badu ere.

⁴⁵ Axular, P.: Gero, Aita Villasanteren argitalpena, Jakin, Arantzazu, Oñati, 1976, 5. or

⁴⁶ Axular, P.: Ibidem, 5. or. Ikus, bide beretik Stauffer, R.: La réforme, Presses Universitaires de France, 6e édition, Paris, 1996, 95–96. orr.; honetara dihardu kalbindarren inguruan: Laïques, ils lui demandaient le baptême de leurs enfants et, dans bien des cas, ils assistaient à la messe. Prêtres, ils ne renonçaient pas à exercer leurs fonctions sacerdotales et à célébrer le sacrifice eucharistique. Cette attitude qui consistait à nourrir des sentiments évangéliques tout en faisant mine d'être attaché au culte établi fut, à partir de 1544, qualifiée par Calvin de "nicodémisme".

6. LABUR ZURREAN

6.1. Lehena

Bi testuok (GAN eta AR) giro bereko emaitzak dira; abiaburu ideologiko orobatsuak dituzte oinarrian eta pentsamolde jakin baten ondorioak dakartzate. Kalbindarren liturgia, herri hizkuntzen erabilera eta gaiak: eskritura sailduak eta salmotezia, erlijio erreformatuaren zabalkundea dute jomuga, monarkia zabaltzaile baten eskumenean.

6.2. Hurrena

Antzekotasun ideologiko horiek tartean ditugula, bi testuon arteko baliabide teknikoak ildo berekoak direla esan dezakegu. Hitz lauz zein bertsoz, artzain protestanteok ohiko topikoak erabiltzen dituzte ondoz ondo: hizkuntzen ezintasuna eta lehentasuna, erreginarenganako menekotasuna, Jainkoaren goralpena eta, oro har, mundu ikuspegi berri baten eskribantza.



6.3. Azkena.

Biotan ere, azken batean, aurreko helburuen zerbitzurako borondate eta gogo ezin argiagoa herri hizkuntzen erabileran. Hasierako egoerak aintzat

hartuta ere, euskarak ez zuen lortu, Albretarren eraginez, gutxieneko estatus ofiziala eskuratzerik eta, historiaren ikusmoldetik, isolatu samarra ematen du LEIÇARRAGAREN lanak, harrezkerokoa den AXULARREN lanarekin alderatuz gero. Hortaz, kontra erreforma katolikoaren hizkuntz eredua izango da garai-le gerogarrenean Euskal Herrian.

Biarnesaren baitan, ostera, soka luzeago zetorren aspalditik. Izan ere, Erdi Aroko jorraketa juridikoak (*Fòrs a costumaz*) literaturan islarik ez. Arestian azaldu legez, SALETTEEN salmoak izango dira biarnesaren lehen obra nagusi. Edu berean ere, biarnesak bere estatusari eutsiko dio luzaroan, erreforma protestanteak erreka jo arren. Azkenean Joana Albretekoaren ondorengoa izango da, Luis XIII. erregeak, hain zuzen ere, 1620. urtean bidea errotik moztuko diona, Biarnoko herria Frantziako eskupean osotoro jarritz⁴⁷.

Gera bitez, beraz, GAN eta AR testuok, egun hizkuntza gutxitu diren eta sasoi batean botere politiko propio baten sostengua izan zuten euskara eta biarnesaren lekuko gisa. Behialako hartan, jakina, gerokoan eta gaurkoan ez bezalaxe, gure herriaren alderdi batean bederen, agintea eta gizartea hizkuntza berean bizi ziren.

⁴⁷ Grosce laude, M.: Le Béarn: témoignages sur mille ans d'histoire, Per Noste, Orthez, datarik gabekoa.

PUYOL: *Louis XIII et le Béarn*, E. L. de Soye et Fils Imprimeurs, Paris, 1872.